




Albaniako Alderdi Demokratikoak erraz menderatu ditu komunista ohiak / 20



Campos: «Ikastolak soka lepotik dutela dauzka Hezkuntza Sailak» / 8



Ezponda nagusitu zen Nafarroako Bertso Txapelketako bigarren saioan / 25

EUSKALDUNON

# Egunkaria

Asteartea, 1992ko martxoak 24 / III. urtea / 402. zenbakia / Salneurria: 85 pta. / 5 libera

ACENOR

## Greba berriro

Acenorreko langileek gaur berriro ekingo diete Sidenorrek prestatu duen planaren kontrako protesta ekintzei. Lau orduko geldialdiak prestatu dituzte gaurko. / 17

## Teniente koronel baten semea hil zuten Madrilen atentatuan

Bere aitaren kotxea martxan jarri zuenean lehertu zen bonba

Espainiako Armadako teniente koronel erretiratu baten semea hil zuten atzo Madrilen, bere aitaren kotxe azpian jarritako lehergailuz.

Juan Jose Carrasco 26 urteko gazteak autoa martxan ipini zuenean lehertu zen bonba, eta ez-tandak eragindako zauri larrien ondorioz hil zen anbulantzian eritexera zeramatela. Leherketa goizeko bederatzietan gertatu zen, militarren etxebizitza batzutatik oso hurbil.

ETAri leporatzen zaio atentatua, eta Felix Carrasco Infanteriako teniente koronel erretiratuaren aurkakoa zen itxuraz.

Tomas de la Quadra-Salcedo Espainiako Justizia ministroak, lehendik emandako mezuari eutsi zion atzoko atentuari buruz hitzegitean: «Ez da inoiz negoziatziorik egongo terroristekin, etengabeko borroka baizik», esan zuen ministroak. / 4




Citroen AX kotxea txikituta utzi zuen bere azpian jarritako lehergailuaren eztandak.

EFE

## Abertzaleek eutsi egin diote

Abertzaleen Batasuna (EMA-EB) eta EA-Entau Pais zerrenda abertzaleek ez dute ordezkariarik lortu Akitaniako Kontseilurako, baina lortutako emaitzak onak direla azaldu zuten atzo bozaramaleek. Ipar Euskal Herriko botoen % 7,2 lortu zuen EMA-EB koalizioak, eta % 1, aldiz, EA-Entau Paisek.

Espero bezala RPR-UDF da nagusi bai departamenduan eta bai Akitanian. Ihizi-Arrantza-Natura-Ohitura zerrendak eman du ezustea Akitanian, 10 ordezkari lortu bait ditu Bordeleko Kontseilurako. Frantzian ere RPR-UDF koalizioa nagusitu da eta sozialistek inoiz baino boto gutxiago lortu dute. / 8-11



BESTERIK

G I Z A R T E A

ETBren bitartekoen arrazionalizazioa «txalogarria» dela esan du Amatiñok / 12

E S T A T U A K

Nazioaren Egoerari buruzko debatea gaur Madrilen / 19

K U L T U R A

Andoaineko bertso saioaren berri Laxaro Azkunereren eskutik / 26

ERREGIO HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK HERRIZ HERRI / 10-11



Eli Galdos.

## Diputazioak gaur erabakiko du Muga trazaketa onartu ala ez

Gipuzkoako Diputazioko gobernu kontseiluak gaur erabakiko du autobideko Muga trazaketa onartu ala ez. Ezusterik gertatzen ez bada, aurrera egingo du Lurraldearekin adostutako alternatibak, PSE-PSOeko bost diputatuek aurka bozkatuko badute ere, EAJko seiak (Eli Galdos diputatu nagusia barne) baiezkoa emango diote eta. Ramon Jauregi PSE-PSOeko idazkari nagusiak atzo iragarri zuen sozialistek Muga alternatibaren aurkako botoa emango dutela.

Miguel Sanz Nafarroko lehen-dakariordeak, autobidearen Nafarroako zatian aldaketarik ez dutela egingo esan zuen, eta Alliren Gobernuak Lurraldea koordinatutako ez duela horrelako ezer negoziatu. / 5-6

## Bi lagun atxilotu ditu Goardia Zibilak Irunen

Goardia Zibilak bi lagun atxilotu zituen atzo Irunen, ETAko informazio komando bateko partaide izatea leporatuta. Madrileko Entzutegi Nazionalaren aginduz atxilotu zituzten Ignacio Gabriel Txintxurreta, 22 urtekoa eta Francisco Antolin Alvarez, 23koa. Joan den astean Bilbon atxilotutako seiak gartzeleratu egin zituzten atzo Entzutegi Nazionalako epaileak aginduta. / 4